

9
ostirala



OSTIRAL MUSIKATUAK

22:00 / Santa Marina plaza
KONTZERTUA: THE CLAYTON

The Clayton Aramaioko talde gazteak zabalduko du "Ostiral musikatuak" programa berria. Mikel (baxu-jotzailea), Jokin (abeslaria), Xabi (gitarraista), Pello (gitarraista) eta Manex (bateria-jotzailea) dira talde honetako kideak.

Duela lau urte hasi zuten ibilbidea, Los Clayton izenarekin, eta rock, blues eta punk ukituak dituen musika egiten dute.

Rock-and-roll estiloen finkatzen dituzte euren abestiak. 80ko hamarkadako estilorako joera dute, euren erreferenteak garai hartakoak baitira eta taldeko kide guztiak baitute estilo hori gustuko.

Hasieran bertsioak egiten zituzten gehien bat; gaur egun ordea, abesti propioak jotzen dituzte batez ere, eta aurtengo udan atera dute "Phoenix" izeneko lehenengo diskoa. Sortu, eraldatu, hautsi eta berreraiki.

Sarrera libre aforoa bete arte.

16
ostirala



OSTIRAL MUSIKATUAK

22:00 / Santa Marina plaza
KONTZERTUA: TRIGGER.-POLIEDRO VOL.I

Eñaut Zubizarreta Mendieta.

Eñaut Zubizarretak biolontxeloarekin interpretazio klasikoko formakuntza jaso duen arren, musika modernoaren lengoian trebatu eta biolontxeloarekin bide berriak zabaltzen dihardu, mundu mailan biolontxeloaren interpretatzeko dauden korranteak ezagutu eta Euskal Herrira ekarri.

Poliedroa Vol.I aurkeztera etorriko da. Poliedroa aurpegi kopuru finituz osatutako gorputz geometriko bezala definitu daiteke. Hala identifikatzen dugu biolontxeloaren, eta zergatik ez, baita gure gorputza ere. Baina zer gertatzen da irudimena martxan jarri eta bi gorputz hauek deformatzen baldin baditugu? Eman ahal diezaiekegu batari zein besteari bestelako forma batzuk?

Sarrera libre aforoa bete arte.

LANDA EREMUETAN MUGIKORTASUN INKLUSIBOA MOVILIDAD RURAL INCLUSIVA



11
igandea

Ibarraundi museoa

11:00-14:00

"BIZIKLETAN" PROIEKTUAREN AURKEZPENA.
PRESENTACIÓN DEL PROYECTO
"EN BICI SIN EDAD".

16:00-19:00

BIZIKLETA EGOKITUETAN IBILALDIAK.
PASEOS CON UN TRICICLO ADAPTADO.

Izen ematea: bidali zure izen abizenak
mail@vicvivero.net helbidera.

12
astelehena

18:00-20:00 / Ibarraundi museoa
HITZALDIA: SISTEMAS DE MOVILIDAD
ENTRE LAS ANTEIGLESIAS Y EL NÚCLEO
URBANO: BUS Y TAXI COMPARTIDO,

Izen ematea: bidali zure izen abizenak
mail@vicvivero.net helbidera.

17
larunbata



19:30 / Inkernu tabernako terraza

KONTZERTUA: HABI TALDEA

Bi urte eta gehiago dira Habi loratu zela. 2018. urtean sortu zen, Jon Ander Artola eta Yeray Gascon taldekideen bideak gurutzatuta. Billabonan jaioak dira biak, eta musikarekiko pasioak elkartu zituen haien bideak.

Jon Anderren bateriaren indarra eta Yerayren gitarraaren soiltasuna, azkenaren ahots bereziaren osagarri. Batu eta sei hilabetera plazaratu zuten zortzi kantu biltzen dituen lehen lana: 'Loratu', eta konfinamendu garaian bigarren proiektua sortu dute, "Koloreak".



www.eskoriatzakoagenda.eus

